



## **ESKOLA-GARRAIORAKO ETA GIZARATERATZEKO IBILBIDEETAN PARTE HARTZEN DUTEN PERTSONENTZAKO GARRAIORAKO LAGUNTZAK EMATEA ARAUTZEN DUEN ORDENANTZA**

**1. artikulua.** Ordenantza honen xedea da gizarteratze-ibilbideetan parte hartzen duten pertsonen eskola-garraiorako eta garraiorako laguntzak emateko irizpideak eta prozedura egituratu eta finkatzea. Eskatzailearen ohiko bizilekuaren eta ikastetxearen arteko gehieneko distantzia 150 km-koa izango da kasu guztietan.

**2. artikulua.** Eskola-garraiorako eta gizarteratze-ibilbideetan parte hartzen duten pertsonen garraiorako laguntzak emateko udal-aurrekontuan esleitzen den zenbatekoa ekitaldiko gehieneko muga izango da.

**1. kapitulua.** Eskola-garraiorako laguntzak.

**3. artikulua.** Eskabideak aurkezteko epea urte bakoitzeko urriaren 15ean amaituko da. Hala ere, 2019an, 2019ko abenduaren 15ean egingo du.

**4. artikulua.** Onuradunak: honako baldintza hauek betetzen dituztenak izan daitezke eskola-garraiorako laguntzen onuradun:

- 16 eta 25 urte bitarteko gazteak.
- Legutioko udalerrian erroldatuta egotea, urtebetetik gorako antzinatasunarekin.
- Dirulaguntza publikoak eskuratu ahal izateko zigor penal edo administratiboren baten edo horretarako ezgaitzen dituen lege-debekuren baten eraginpean daudenei ez zaie laguntzarik emango, ezta sexu-bazterkeriatatik zigortuta daudenei ere, Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legearen azken xedapenetako seigarrenean xedatutakoaren arabera.

**5. artikulua.** Udalak eskola-garraiorako laguntzak emango dizkio ikasle berari, baldin eta ikasturte osorako matrikulazioa egiaztatzen badu (prestakuntza arautua, batxilergoa edo unibertsitate-ikasketak).

Ikasle bakoitzeko laguntza bakarra emango da.

**6. artikulua.** Eskola-garraiorako laguntzarik ez zaie emango udalerritik kanpo ikasten ari diren ikasleei, Legution egin ditzaketan ikasketei edo horiek egiteko garraio-ituna dutenei.

**7. artikulua.** Ordaindutako lanengatik diru-sarrerak dituzten ikasleei eskola-garraiorako laguntzak ematea edo ukatzea aztertzeo eskubidea izango du Hezkuntza Batzordeak.

**8. artikulua.** Eskabideak honako irizpide hauen arabera baloratuko dira:



- Garraio-txartelaren prezioa.
- Eskaera egiteko unean familia-unitatean dauden kideen kopurua.
- Familia-unitatearen guztizko diru-sarrerak.
- Laguntza emateko, familia-errenta estandarizatuaren kalkulua hartuko da kontuan, ordenantza honen 17. artikuluan horretarako ezarritakoaren arabera.
- Emandako dirulaguntzen zenbatekoa, Legutioko Udalarena barne, ezin izango da diruz lagundutako jardueraren kostua baino handiagoa izan.

**9. artikulua.** Eskabideak. Aurkeztu beharreko dokumentazioa:

- Ikastetxean matrikulatu izanaren ziurtagiria edo egiaztagiria.
- Eskola-egutegia.
- Azken ekitaldiko PFEZ aitortpena.
- Banku-kontuaren zenbakia.
- Zergei buruzko zorrik ez dagoela dioen erantzukizunpeko aitortpena.
- Legutioko Udala, Herri Administrazioak eta Gizarte Segurantza.
- Legutioko Udalak ofizioz egiaztatuko ditu erroldatze-datuak.
- Laguntzak hainbat administrazioari eskatzen bazaizkie, udal honetan aurkeztu beharko du jasotako diru-sarreraren zenbatekoa.
- Hala ere, eskaerak berekin ekarriko du Legutioko Udalak baimena ematea legez egokia den zerga edo ekonomia arloko informazioa eskatzeko.

**10. artikulua.** Laguntzak ordaintzea.

Laguntzen zenbatekoa transferentzia bidez ordainduko da, aurkeztutako banku-kontura.

Ordainketa egin ahal izateko, garraioaren abonua edo bonoaren faktura edo garraio bidearen jatorrizko tiketak aurkeztu beharko dira.

Laguntzak uztailean ordainduko dira, eta, beraz, egiaztagiria aurkezteko epea urte bakoitzeko maiatzaren 31n amaituko da.

**11. artikulua.** Dirulaguntza galtzea.

Onuradunek eskola-garraioko laguntza galdu ahal izango dute honako kasu hauetan:

- Biztanleen udal-errolan baja ematea.
- Ikasketak uztea.

**12. artikulua.** Interpretazioa.

Ordenantza honen interpretazioaren inguruan sor litekeen edozein zalantza alkateak ebatziko du, Legutioko Udaleko Hezkuntza Batzordeak proposatuta.

**2. kapitulua: Gizarteratzeko bidean dauden pertsonentzako laguntzak.**



**13. artikulua.** Eskabideak aurkezteko epea.

Eskabideak aurkezteko epea irekita egongo da urte osoan.

**14. artikulua.** Onuradunak.

Pertsonak gizarteratzeko ibilbidean prestatzeko garraio-laguntzen onuradun izan daitezke:

- 18 eta 65 urte bitarteko pertsonak.
- Legution erroldatuta egotea eta bertan benetan bizitzea, 6 hilabetetik gorako antzinatasunarekin.
- Gizarte-bazterkeriako hasierako gizarte-diagnostiko bat izatea, eta diagnostiko hori arautzen duen 385/2013 Dekretuaren arabera, gizarte-bazterketa arin, ertain edo larriko egoeran dagoela adieraztea.
- Legutioko Udaleko oinarrizko gizarte-zerbitzuarekin gizarteratze-prozesu batean egotea.
- Ez zaie laguntzarik emango zigor- edo administrazio-arloan dirulaguntza edo laguntza publikoak lortzeko aukera galtzearekin zigortuta daudenei, ez eta horretarako ezgaitzen duen legezko debekuren baten eraginpean daudenei ere, sexu-bereizkeriagatiko debekuak berariaz aipatuta, Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legearen azken xedapenetako seigarrenean xedatutakoarekin bat etorriz.

**15. artikulua.** Udalak ikasle beraren prestakuntzarako garraio-laguntzak emango ditu, baldin eta prestakuntza arautuko ikastaroren batean matrikulatuta dagoela egiaztatzen badu.

**16. artikulua.** Kapitulu honetan bakarrik aplikatuko dira ikasketak udalerritik kanpo ez ezik udalerrian bertan ere egiten dituzten ikasleak garraiatzeko laguntzak.

**17. artikulua.** Balorazio-irizpideak.

Eskabideak irizpide hauen arabera baloratuko dira:

- Garraio-txartelaren prezioa. Lekualdaketak garraio publikoan egin beharko dira.
- Eskaera egiteko unean familia-unitatean dauden kideen kopurua.
- Gizarteratzeko prestakuntzaren ondoriozko garraio-gastuei aurre egiteko baliabide ekonomikorik ez izatea.
- Emandako laguntzen zenbatekoa ezin izango da jardueraren kostua baino handiagoa izan.



- Joan-etorrien kuotari hobari bat aplikatuko zaio, familia-unitatearen errenta estandarizatuaren arabera, Familia-errenta estandarizatzeko sistemari buruzko uztailaren 24ko 154/2012 Dekretuan xedatutakoaren arabera:

Familia errenta estandarizaturia	Hobariaren ehunekoa
13.000 euroraino	% 90,00
13.001 eurotik 15.000 euroraino	% 75,00
15.001 eurotik 18.000 euroraino	% 50,00

### FAMILIA-ERRENTA ESTANDARIZATUA KALKULATZEKO METODOA

Familia-errenta (zerga-oinarri orokorra gehi PFEZren aurrezkiaren zerga-oinarria) familia-unitatearen baliokidetasun-koefizientearekin zatitzearen emaitza izango da (dagozkion koefizienteak batuko dira):

Subjektu pasiboa	Koefizientea
Ezkontidearekin edo izatezko bikotekidearekin	1,5
Ezkontiderik edo izatezko bikotekiderik gabe	1,3
Genero indarkeriaren biktima	1,3
Familia-unitateko ume bakoitza	0,3
Familia-unitateko kideetakoren batek	0,3
desgaitasunik badauka: =>% 33	

18. artikulua. Laguntza eskatzea, justifikatzea eta izapidetzea.

Eskaerak udaleko oinarrizko gizarte-zerbitzuan aurkeztuko dira.

Honako agiri hauek aurkeztu behar dira:

- a) Behar bezala sinatutako eskabidea.
- b) NAN/AIZ.
- c) Familia-unitateko kide guztien PFEZ aitortpena edo aitortpen hori aurkeztu beharrik ez dagoela egiaztatzen duen agiria. Azken horretan, azken ekitaldian jasotako errenten egiaztagiria aurkeztu beharko da.
- d) Joan-etorrien egiaztagiria. Gastuak fakturen eta froga-balioa duten gainerako agirien bidez egiaztatuko dira.
- e) Prestakuntza-ikastaro batean matrikulatu izanaren ziurtagiria edo egiaztagiria.
- f) Ikastaroa ematen duen zentroak edo organoak emandako bertaratze-ziurtagiria.
- g) Ikastaroaren egutegia.



- h) Hileko diru-sarreraren egiaztageria: gizarte-prestazioetatik datozen diru-sarrerak hartuko dira kontuan, hala nola DSBE, SEPEren langabezia-prestazioa, mantenu-pentsioa, edo lan-jardueratik datozen diru-sarrerak. Kasu horretan, lan-nomina aurkeztuko dute. Diru-sarrerarik ez badute edo ezkutuko ekonomiako enplegutik badatoz, diru-sarreraren zinpeko aitortpena aurkeztuko da.
- i) Gizarte-langilearen txostena, bazterkeriaren gizarte-diagnostikoaren hasierako balorazioaren emaitza jasotzen duena eta gizarteratze-ibilbide batean parte hartzen ari dela jasotzen duena.
- j) Banku-kontuaren zenbakia.
- k) Legutioko Udalarekiko, Administrazio Publikoekiko eta Gizarte Segurantzarekiko zerga-zorrik ez dagoela dioen erantzukizunpeko aitortpena.
- l) Legutioko Udalak ofizioz egiaztatuko ditu erroldatze-datuak.
- m) Legutioko Udalak laguntza emateko eta mantentzeko baldintzak betetzen direla egiaztatuko du, ahal dela bitarteko elektronikoen bidez. Horretarako, dagokion izapidea egiteko beharrezkoa bada, interesdunaren baimena eskatuko du.
- n) Aurreko paragrafoan aipatutako datuak eta dokumentuak ofizioz egiaztatuko ditu organo kudeatzaileak, ahal dela kontsulta eta datu-transmisio elektronikoen bidez, komunikazio-pasabideen edo elkarreragingarritasun-sistemen bidez, prozeduraren kudeaketari arintasun handiagoa emateko, eta, ondoren, prozeduran sartuko da. Eragindako organo, erakunde edo administrazio publikoekin egindako hitzarmen eta akordioetan ezar daitezkeen elkarreragingarritasun-baldintzetan eta, nolahi ere, pertsona interesdunen baimenari buruz indarrean dagoen legerian ezarritako mugak eta bermeak errespetatuz, prozeduren instrukzio-organoei zuzenean eskuratu edo eskuratu ahal izango dituzte beste organo, administrazio edo erakunde batzuen titulartasun publikoko fitxategietan dauden datu pertsonalak, eta espedientean jasota utzi beharko dira sarbide elektronikoen horiek, bai eta datu horien data, edukia eta emaitzak ere.
- o) Administrazio desberdinei laguntzak eskatuz gero, udal honetan aurkeztu beharko du jasotako diru-sarreraren zenbatekoa. Hala ere, eskaerak berekin ekarriko du Legutioko Udalak baimena ematea legez egokia den zerga edo ekonomia arloko informazioa eskatzeko.

## **19. artikulua.** Laguntzak ordaintzea.

Laguntzen zenbatekoa transferentzia bidez ordainduko da, aurkeztutako banku-kontura.

Laguntzaren zenbatekoa hilero ordainduko da, hilaren hasieran, aurrerakin gisa. Hilabeteko epean, garraioaren jatorrizko txartelen edo garraio-txartelen ordainketaren faktura aurkeztu beharko dute, hurrengo hilabeteko ordainketa egin ahal izateko. Egiaztageriak aurkezten ez badira, prestazioari baja emango zaio.

Emandako zenbatekoaren eta aurkeztutako frogagiriaren artean bat ez badatoz, hurrengo hilabetean erregularizatuko dira ordainketa gehiago geratzen direnean, edo prestazioa amaituz gero erreklamatuko zaizkio.

## **20. artikulua.** Dirulaguntza galtzea.



Onuradunek prestakuntzarako garraio-laguntza galdu ahal izango dute honako kasu hauetan:

- Biztanleen udal-eroldan baja ematea.
- Ikasketak uztea edo gutxienez ehuneko 80ko asistentzia ez justifikatzea.
- Egindako gastua hilerok ez justifikatzea.

## **21. artikulua.** Interpretazioa.

Ordenantza honen interpretazioaren inguruan sor litekeen edozein gatazka alkateak ebatziko du, Legutioko Udaleko Gizarte Ongizateko Batzordeak proposatuta.

## **22. artikulua.** Onuradunen betebeharrak.

Laguntza galtzea eragin dezakeen edozein aldaketa gertatu bezain laster jakinarazi beharko dute.

### **Azken xedapena.**

Ordenantza hau behin betiko argitaratzen den egunaren biharamunean jarriko da indarrean eta egun horretatik aurrera izango ditu ondorioak.

Legutio, 2022ko abenduaren 22a

Alkatea,

Juan Kruz Jainaga Inciarte